

## ALERTA MUNDIAL POR EL CORONAVIRUS →

Euskal gazteek,  
arduratsuak  
COVID-19aren  
krisiaren aurrean

Inkesta batek islatzen duenez, gazteek bere gain hartzen dute etxean egoteko erantzunkizuna

**DONOSTIA** – Konfinamenduarekin konprometituak eta koronabirusaren aurkako borrokan ardura-dunak. Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 34 urte bitarteko hamar gaztetik zortzi konprometitu sentitzen dira koronabirusaren krisiaren ondorioz ezarritako egungo konfinamenduarekin. Izan ere, Gazteen Euskal Behatokiak egindako inkesta baten arabera, ardura hori areagotu egiten da 30 eta 34 urte bitarteko gazteen artean, %85,7ra.

Inkestako datuek islatzen dutenaren arabera, era berean, gazteak jakitun dira sare sozialen bidez “gezur asko jasotzen ari direla” eta jarrera aktiboa erakusten dute horiek hedatzen ez laguntzeko. Hala, hamarretik bederatzik albeste faltsuak jaso dituztela diote, eta %81,7k modu aktiboan egiaztatu dute jasotako mezua benetazkoa dela. Datuak Gazteen Euskal Behatokiak *online* egindako inkesta batetik atera dira, alabaina, martxoaren 20tik 29ra bitartean 3.482 inkesta egin zituen. Parte-hartzaile gehienak emakumezkoak izan ziren (%70). Adin-tartean arabera, %34,4, 15-19 urteko gazteak izan ziren; %36,5, 20-24 urtekoak; %19,1 25-29 urtekoak; eta %10 30-34 urtekoak.

Bestalde, gazteek beste laguntzeko beharra sentitzen dute: gaixotasuna mentala duten pertsonekin edo tratu txarren biktima diren emakumeekin kezkatuta agertzen dira.

Herritarren aldatiaz ere galde-tu dute inkestan. Hala, hamar gaztetatik zortzik konfinamenduarekin konprometitu daudela esan dute, baina herritar batzuek ere aspertuta daudela aitortu dute. Hain zuzen ere, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen %59k aspertu edo nagieria sentitu du egunotan. 30-34 urteko herritarren %30ek ere sentimendu hori partekatzen du. Aldiz, sortutako egoerarekiko kezka eta beldurra (%41,3k aipatu zituzten) sarriago nabarmentzen dira adinak gora egin ahala (%52,8 30 eta 34 urte bitarteko kolektiboan, eta %34,9 15 eta 19 urte bitarteko gazteen artean).

Inkestari erantzun ziotenen %64 ikasleak ziren; %29,3k lana zuten; %3,5 langabezian zeuden; eta beste %3,2ak beste egoera batean zegoen. Nabarmentzekoa da etorkizun hurbilenekoarekiko kezka, ikasturtearen ondorioei eta selektibitateko azterketei dagokien bereziki. – *Eunate F. Dominguez*



Karlos Ibarzabal Herri Ametsa ikastolako zuzendaria (peto horiarekin) atzo, Herreran, guraso bati materiala ematen.

# Ikastola eta familiak, inoiz baino gertuago

**DONOSTIAKO HERRI AMETSA IKASTOLAKO IRAKASLEEK IKASTURTEKO AZKEN HIRUHILABETEKO MATERIALA ETXEZ ETXE BANATU ZUTEN ATZO, EUREN AUTOEZ BALIATUZ ETA UDALTZAINGOAREN BAIMENAREKIN**

✎ *Oihana Pradoren erreportajea* 📷 *Argazkia Javi Colmenero*

**J**oan de martxoaren 12an Eusko Jaurlaritzak ikastetxeak itxeko agindua eman zuenetik, erronka handia izan da hezkuntza arloko komunitatearentzat ikasturtearekin aurrera egitea. “Koronabirusa dela eta, agertokia erabat aldatu zaigu: ikasleak ez daude ikastolan irakasleekin, etxean familiarekin baizik, eta egoera berrira egokitzea ezinbestekoa izan da”, azaldu du Karlos Ibarzabal Herri Ametsa ikastolako zuzendariak.

Testuinguru berri honetan, digitalizazioak funtsezko papera hartu du haurren egunerokoan, bai Hangouts Meet bezalako tresnen bitartez eguneroko tutorearekin konektatuz, bai e-mail propio bat sortuz ikasle bakoitzari etxeko-lanei buruzko zalantzak argitzeko aukera izan dezaten, etab. “DBH etapan jarri ditugu indarrak bereziki, baina etapa guztietan saiatu gara ikasleekiko gertutasuna mantentzen eta curriculumarekin aurrera egiten. Hiru hilabete ez da gehiegi curriculumarentzat, baina inportante iruditzen zaigu ikasteko ohiturak

mantentzea, bakoitza bere mailan, noski. Haur Hezkuntzako ikasleei, adibidez, postaz bidali dizkiegu fitxak eta Inika bidez ere bideoak bidali zaizkie egunero erronka bat proposatuz”, argitu du Ibarzabalek.

Teknologia inoiz baino funtsezkoagoa bihurtu da irakasle eta ikasleentzat, baina Herri Ametsan argi daukate ez dela bide bakarra izan behar eta oreka bilatu beharra ikusten dute: “Manipulatioari garrantzi handia ematen diogu lehen etapetan eta horregatik liburuak eta bestelako material fisikoak helarazi behar genizkiela uste genuen”, azpimarratu du.

**IKASLE GUZTIENGANA** Behin erabakia hartu ondoren, banaketa antolatzen hasi ziren. Lehenik, Donostiako Udaltzaingoarekin harremanetan jarri ziren, ikastolako guraso baten bitartekaritzarekin, eta banaketa egiteko baimena emateaz gainera, laguntza ere eskaini zieten. “Udaltzainak jakinaren gainean

egonda, mugikortasuneko agenteak etorri dira guri laguntzera eta banaketa kontrolpean genuela baieztatu arte ez dute alde egin”, adierazi du zuzendariak, zeinak banaketan ere hartu duen parte, ikastolako beste hiru irakasleekin batera.

Bi autoetan, goizeko 8.00etan ekin zioten atzo banaketari. Lehenik, Guardaplata bidean kokatzen den ikastolara abiatu ziren, materiala jasotzera. Behin dena antolatuta, eta geltoki bakoitzean zain egongo ziren familien zerrenda eskuan hartuta, 10.00etan egin zuten lehen geldialdia: kotxe bat Herreran eta bestea San Pedron. Izan ere, auto bakoitzak ibilbide bat osatu zuen ahalik eta familia gehienengana iristearren: batek Herrera, Altza, Larratxo, Los Boscós, Buena Vista eta Gaiztarro ibilbidea osatu zuen; besteak, berriz, San Pedro, Trintxerpe eta Intxaurren.

Egoera berezi honetan, segurtasun neurriak ezinbestekoak izan dira, eta banaketan parte hartu zutenek maskarak eta eskularruak janzteaz

gain, ikastolako peto horia zeramaten soinean, gurasoek identifikatu zituzten. Banaketan gora-behera txiki batzuk egon arren, garaiz osatu zuten ibilbidea, eta zenbait geltokitan itxaron behar izan zuten, familiei helarazitako ordutegia betetzearren. “Hain ondo joan zaigu txantxetarako tartea ere izan dugula eta baten batek esan du paketeria enpresa bat sortu beharko genukeela”, esan du irribarrez.

**DEN-DENAK KONEKTATUTA** Liburuen banaketa, momentuz, LH 1. mailatik LH 3.ra bitarteko ikasleentzat izan da, “hortik gorako ikasleek EKI programaren plataforma digitalean aritzeko aukera dutelako”. Halere, honako esperientziaren emaitza positiboa izan dela ikusita, gainerako mailetan gauza bera egiteko bidea zabalik ikusten du Ibarzabalek.

Oztopoak oztopo, egunetik egunera irtenbide berriak bilatzen dihardute, ikasturteak aurrera jarrai dezan. “Badira ikastolan Internetik ez duten familia gutxi batzuk eta Ikastolen Elkartearen laguntzari esker, familia horiei konektatzeko *pintxoak* banatu genizkien duela aste batzuk”.

Herri Ametsako lehen promozioiko ikasle ohi, gerora irakasle, eta duela hamaika urte ikastolako zuzendari da Karlos Ibarzabal. Honakoa, ziurrenik, orain arte bizi izan duen erronka handienetakoa izango da. “Geldialdi honek gogoetarako parada ere eman behar liguke gizarte gisa. Edukiak garran-tzitsuak dira, noski, baina balioekin eraikitzen dugure gizar-tea eta digitalizazioak zein paper hartu behar duen hausnartu beharko genuke”.

Herri Ametsa ikastolak 550 ikasle inguru ditu gaur egun, Haur Eskolatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara bitartean. ●